



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 19a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Esako lur-lerradurek ukitutako Lasaitasuna eta Mirador de Yesa urbanizazioetako jabeei eta egoiliarrei, eta bere egin du babesa jasotzeko egin duten eskaera. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Estatuko Gobernua eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik jar ez dezaten, merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnez landa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira emakume nafarrek beren haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko zuzkidurarekin. Mozioa erretiratzea (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espeditenteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Animaliak Babesteko Etxauriko Zentroaren kudeaketa eta zakurrak biltzeko zerbitzua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen jarraitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurrien gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, asistoliako organo-emateetarako protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko otsailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Bartzordera igorri da.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko otsailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateari dagokio aurrezki kutxen eta ekonomiaren sektore publikoaren gaineko eskumen osoa, betiere Estatuak jarduera ekonomiko orokorrerako dituen oinarriei eta antolamenduari eta Estatuaren banku- eta kreditu-politikari jarraikiz, Nafarroako Foru Eraentza Berreza- rri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1 artikulua xedatzen duenez.

Nafarroak, eskumen hori baliatuz, Nafarroako Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea onetsi zuen..

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du Nafarroako Foru Zuzenbideko arau- ei jarraituz eratzen diren fundazioen arloan, aipatu lege organikoaren 44.20 artikuluekin bat.

Nafarroako Foru Berriak, 44.etik 47.era bitarteko legeetan, izaera pribatuko fundazioei buruzko xedapenak ditu. Beste alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 125. eta 126. artikuluetan, Nafarroako Foru Komunitateko Admi-

nistrazioko fundazio publikoei buruzko xedapenak jasotzen ditu.

Uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuan aurrezki kutxen gobernu organoen eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuk arautzen dira. Arau horretan, zeina geroago aldatua izan baitzen otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuaren eta Kreditu entitateak Berregituratzeko eta Desegiteko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen azken xedapenetako hamahirugarrenaren bidez, aurrezki kutxak izaera bereziko fundazio bihurtzea jasotzen eta arautzen zen, 6. artikuluan.

Izaera bereziko fundazio horiek sortu dira aurrezki kutxek beren finantza-jarduerak eta ongintza- eta gizarte-jarduerak banantzetik. Finantza-jarduera, bere ondarearekin batera, beste kreditu-entitate bati eskualdatzen zaio, azken horren zenbait akzioen truke, eta aurrezki-kutxaren jatorrizko muina, berriz, izaera bereziko fundazio bihurtzen da, kreditu-entitatearen izaera galtuta.

Arau horiek aplikatuta, aurrezki kutxarik gehienak fundazio berezi bihurtu ziren. Nafarroaren kasuan, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea desagertu egin zen. Kutxa hori xurgapen bidezko bat-egite baten ondorioz sortu zen; hau da, Nafarroako Aurrezki Kutxak –Nafarroako Foru Diputazioak 1921an fundatu zuen– xurgatu zuelarik Iruñeko Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea –Iruñeko Udalak 1872an sortu zuen–. Desagertu aurretik, bere finantza-jarduera Banca Cívica-ri eskuordetu zion lehenbizi, eta, 2012tik aurrera, CaixaBank-i. Desagertzean, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren urtarrilaren 3ko 1/2013 Foru Aginduaren bidez, aipatutako kutxatik heldutako fundazio bereziaren kudeaketa-batzordea izendatu zen. 2013ko ekainaren 25ean, kudeaketa-batzorde horren erabakiz, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea izaera bereziko fundazio bihurtu, eta fundazio hori “Nafarroako Kutxa Fundazioa” izendapenarekin eratu zen. Fundazioaren

estatutuak onetsi ziren Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekainaren 19ko erabaki baten bidez eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren 2013ko ekainaren 20ko agindu baten bidez.

Ondoren, Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legeak indarrik gabe utzi ditu bai Aurrezki kutxen gobernu-organoei buruzko oinarrizko arauak erregulatzeko abuztuaren 2ko 31/1985 Legea, bai eta Aurrezki kutxen gobernu-organoei eta entitate horien araubide juridikoaren gaineko beste alderdi batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretua ere, babes-sistema instituzionalen araubide fiskalari buruzko tituluak izan ezik. Aipatutako legea dela-eta, banku-fundazioek ordeztu zituzten aurreko fundazio bereziak. Lege horren arabera, izan ere, baldin eta fundazio batek kreditu-entitate batean duen partaidetza, zuzenean edo zeharka, gutxienez ere entitatearen kapitalaren edo botoeskubideen ehuneko 10ekoa bada, edo partaidetza horrek aukera ematen badio kreditu-entitatearen administrazio-organoren kideetakoren bat izendatzeko edo kargutik kentzeko, fundazio hori banku-fundaziotzat hartuko da. Aurrezki kutxen eraldatetik heldutako fundazio bereziek, ez badiuzte aurreko baldintzak betetzen, fundazio arrunt daukate bihurtu beharra sei hilabeteko epean, lege horrek indarra hartzen duen egunetik kontatzen hasita. Fundazio arrunt horiek bidezkoa izanen dute sorburu izan duten aurrezki kutxaren izena erabiltzea beren izendapenean eta beren jardunean.

Nafarroako Kutxa Fundazioak, xedapen horien ondorioz, fundazio arrunt du bihurtu beharra, eta gai horren arloko arau orokorrak izanen zaizkio aplikatzekoak; hau da, Nafarroako Foru Berriko aipatu diren arauak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legekoak.

Aurrezki kutxen eraldatetik heldutako fundazioen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, komeni da fundazioon araubidea osatzea beren zuzendaritza-organoei buruzko zenbait arau espezifikorekin; betiere, Nafarroako Foru Komunitateak fundazioen arloan dituen eskumenen barruan.

Aipatu zuzendaritza-organook arautzeko foru lege honek oinarritzat hartzen dituen printzipioak honakoak dira: gizarte-interesa, osajeraren sinpletasuna, ordezkagarritasun demokratikoa, gastuaren arloko austeritatea, publikitatea eta gardentasuna, jarduera autonomoa administrazioekiko eta jardueraren kontrola.

Gizarte-interesa bermatzeko, zuzendaritza-organoen jarduerari baldintza gisa ezartzen zaio

Nafarroaren eta nafarren onura dakarten gizarte-intereseko helburuak bilatzea betiere.

I. KAPITULUA

Gobernu-, administrazio-, kudeaketa- eta ordezkartza-organook

1. artikulua. Zerrenda.

1. Nafarroako aurrezki kutxen transformazioaren ondoriozko fundazioen estatutuetan aurreikusiko da fundazioaren jarduera-eremua Nafarroa dela, eta haren gobernu-organoa bederatziki kidek osatutako patronatu bat izanen dela.

2. Ezertan ukatu gabe fundazioaren helburuei ekitea eta helburu horiek ongintza eta gizarte arlokoak izatea, aurrezki kutxen transformazioaren ondoriozko fundazioen zuzendaritza-organook beren egintzetan Nafarroaren eta nafarren aldeko helburuak bilatuko dituzte, gizarte-interesekoak.

II. KAPITULUA

Patronatua eta patronatu-kideak

2. artikulua. Patronatua.

1. Patronatua izango da foru lege honen xedapenen menpeko fundazioen zuzendaritza- eta erabakitze-organoa goren.

2. Lehendakari izendatzen duten pertsona ari-tuko da patronatuko buru.

3. Zuzendaritza, hierarkikoki, patronatuaren menpean egonen da.

3. artikulua. Patronatuaren osaera.

1. Patronatua ondoko hauek osatuko dute, patronatu-kide gisa:

a) Lehendakaritzaren titularra.

b) Bost kide Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatuak. Foru parlamentari bakoitzak hiru hautagai bozkatu ahalko ditu, gehienez ere.

c) Nafarroako Gobernuak hautaturiko bi kide.

d) Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak hautaturiko kide bat.

2. Babesletzak patronatu-kide izendatuko ditu aurreko zenbakian aipatzen diren pertsonak.

3. Patronatuaren bileretan izanen dira, halaber, zuzendari eta idazkari izateko izendatutako pertsonak, salbu eta zuzenean dagozkien lan-aferek direnean hizpide.

Pertsona horiek hitza izanen dute, baina botorik ez. Ez zuzendaria ez idazkaria ez dira patronatu-kide izanen.

4. artikulua. Patronatu-kideak

1. Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak Babesletzari jakinaraziko dizkiote patronatu-kide kargurako hautaturiko pertsonen izenak.

Gehienez ere hamar eguneko epean, Babesletzak patronatu-kide kargurako hautatu diren pertsonak izendatuko ditu, hautaturiko pertsonari erreparorik jartzeko aukerarik gabe.

2. Patronatu-kideak dagozkien eginkizunetan hasiko dira kargua espresuki onartu eta onarpen hori jasota gelditu ondoren, pertsonak berak sinatutako agiri batean, Babesletzak ezartzen duen lruñeko tokian.

3. Patronatu-kide bat ordeztuko edo kargutik kenduko da honako kasu hauetan:

a) Hiltzen denean edo hilda dagoela deklaratu denean; baita pertsona juridikoa iraungitzen denean ere.

b) Ezgaitasuna, desgaitasuna edo bateraezintasuna dagoenean, legean ezarritakoaren arabera.

c) Ebazpen judiziala dagoenean, legeak aurreikusten dituen kasuetan.

d) Agintaldia amaitzen denean.

e) Ukoa egiten duenean. Uko hori idatziz jasokoa da.

5. artikulua. Patronatu-kide karguaren iraunaldia.

1. Patronatu-kidearen karguak legegintzaldiak adina iraunen du, eta hurrengo legegintzaldian berri arte luzatuko da.

2. Haien agintaldian, patronatu-kideak ezin izanen dira kargutik kendu, salbu eta aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta, kasua denean, aplikatzekoak diren legezko xedapenen arabera.

3. Patronatu-kide kargua pertsonak berak bete beharko du. Hala ere, patronatu-kideak beste kide bati eskuordetu ahal izanen dio boto eskubidea, bere izenean eta bera ordezkatzuz patronatuko bileretan aritzeko. Eskuordetze hori idatziz egin beharko da patronatuko bilera bakoitzerako.

6. artikulua. Patronatu-kideen betebeharrak.

Patronatu-kideen betebeharrak dira, indarrean dagoen legediak eta Fundazioeko estatutuek xedatu dituztenez gain, honako hauek:

a) Fundazioaren xedeak zintzo betetzea.

b) Patronatuak onetsiko duen Jokaera Kode Etikoaren printzipioak zorrotz betetzea.

c) Bileretara agertzea.

d) Karguko zereginak ordezkari leial bati dago-kion bezala betetzea.

e) Fundazioaren ondasunen eta balioen mantentzea eta zaintzea.

f) Legearen edo estatutuen aurka edo ardura-gabekeriak egindako ekintzen ondorioz sortzen dituzten kalte eta galeren erantzule izatea fundazioaren aurrean. Ez dute erantzukizunik izanen hori sorrarazi duen erabakiari berariaz aurka egiten diotenen edo, hori hartu eta gauzatzeko esku hartu gabe, hori gertatu izana ez zekitela edo, horren berri izanda, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin dutela edo horri berariaz aurka egin diotela frogatzen dutenek.

g) Dokumentazioa zaintzea, fundazioaren iturri den erakunde nagusia sortu zenetik. Hartara, kasua bada, beharrezkoak diren zuzemenak egiten ditu jatorriaren arabera dagokion dokumentazioa berreskuratzeko.

7. artikulua. Patronatu-kideen ordainsariak.

1. Patronatuko kideak doan ariko dira beren karguetan. Horren truke ez dute inoiz inolako ordainsaririk edo dietarik jasoko.

2. Aurrekoa gorabehera, patronatu-kideek beren eginkizuna betetzean sortutako gastuak, behar bezala justifikatu eta gero, kobratzeko eskubidea izanen dute, beharrezkoak diren zenbatekoak eta ez besterik. Kontzeptu horiengatik jasoko dituzten zenbatekoak publikoak izanen dira.

8. artikulua. Patronatuaren eskudantziak.

1. Patronatuari dagokio fundazioaren xedeak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantenduta.

2. Patronatuari dagokio fundazio bereziaren eta, baita ere, fundazio bereziaren iturri den erakunde nagusiaren dokumentazio osoa ordenatu, sailkatu eta kudeatzea. Foru parlamentariak eskatu ahalko dute dokumentazio hori. Berariazko protokolo bat sortuko da Nafarroako Unibertsitate Publikoak edo Nafarroako beste erakunde publikoek dokumentazio hori kontsultatu eta eskuragarri izatearen inguruan.

3. Patronatuak, fundazioaren gobernu organo gorenaren heinean, ahalmen osoa du fundazioaren interesekin zerikusia duten gai guztiei buruz erabakitzeko.

Eginkizun horien gauzatzeko arrunta eta patronatuaren erabakien betearazpena lehendakariaren eta zuzendariaren esku egonen dira. Patronatuak karguan aritzeko beharrezkotzat jotzen diren ahalmenak eskuordetuko dizkie edo, kasua bada, ahalordetze orokorrak edo bereziak eginen, salbu eta legearen edo estatutuen arabera eskuordeezinak diren gaietan.

4. Besteak beste, honakoak dira patronatuaren eskudantziak eta ahalmenak:

a) Fundazioaren estatutuak eta, kasua bada, haren aldaketak, onestea. Nolanahi ere, ezin izanen dira izan goragoko maila bateko araudian xedatuaren aurkakoak eta, bereziki, foru lege honetan ezarritakoaren aurkakoak.

Patronatuak estatutuen proiektua edo aldaketak onesteko, patronatu-kideen gehiengo osoa beharko da.

Estatutu horiek eta beren aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta fundazioaren web orrian argitaratuko dira.

b) Aurrekontuak prestatzea eta fundazioaren urteko kontuak onestea, ekitaldi bakoitzean.

Aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiak ezin izanen dira izan ekitaldirako aurreikusitako diru-sarreraren ehuneko 125etik gorakoak, non eta Nafarroako Parlamentuak berariazko baimenik ematen ez duen.

Halaber, aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiek ezin izanen dute ehuneko 10etik gorako igoerarik izan aurreko ekitaldiko aurrekontuan jaso ziren gastu aurreikusiekin alderatuta, non eta Nafarroako Parlamentuak berariazko baimenik ematen ez duen.

Aurrekontuak eta urteko kontuak onesteko, patronatuko kideen gehiengo osoa beharko da.

Aurrekontu eta kontu horiek, onetsi eta gero, publikoak izanen dira.

c) Jarduketa planak eta programak onestea, aurrekontuetan aurrekusiaren barrenean, eta plan edo programa horiek betearazteko egintzak, haien isaeragatik edo zenbatekoagatik patronatuaren eskumenekoak badira.

Jarduketa-plan eta -programa horiek onesteko, patronatuko kideen gehiengo osoa beharko da.

Egintza horiek publikoak izanen dira.

d) Fundazioaren urteko kontuak auditatuko dituen sozietatea izendatzea.

Izendapen hori eta auditoretzaren txostena publikoak izanen dira.

e) Fundazioaren egitura organikoa eta haren aldaketak onestea, bai eta haren unitateetatik edozein sortzea edo kentzea ere.

Fundazioaren egitura bai eta haren langileen zerrenda ere publikoak izanen dira.

f) Jokaera Kode Etikoa onestea.

g) Ondasunak inbertitu, errealizatu, eraldatu eta gordailatzeko eta fundazioaren xedeetarako aplikatzeko erabakiak.

h) Zuzendaria hautatzea eta ordeztzea, eta haren ordainsariak ezartzea. Egintza horiek publikoak izanen dira.

i) Idazkaria hautatzea eta ordeztzea, eta haren ordainsariak ezartzea. Egintza horiek publikoak izanen dira.

j) Fundazioaren delegazioak eratzeko erabakia hartzea. Egintza hori publikoa izanen da.

k) Legearen edo estatutuen arabera, edo patronatuaren erabakiaren bidez, esleitzen zaizkion gainerako ahalmenak, eta fundazioaren beste organoei esleitu ez zaizkien gainerako guztiak.

5. Aurreko zenbakian aurreikusitako ahalmenak ez dira inoiz ere delegatuko.

9. artikulua. Patronatuaren funtzionamendua.

1. Patronatua urte bakoitzeko lehen seihilekoan batzartuko da onespina emateko urteko kontuei eta emaitza-aplikazioko proposamenari, lege aplikagarrietan aurreikusten den moduan.

Era berean, ekitaldiko laugarren hiruhilekoan batzartuko da, hurrengo ekitaldiari dagokion jarduketa planari onespina emateko.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ezertan ukatu gabe patronatuak lehendakariak deitzen duen edo gutxienez ere hiru patronatu-kideek eskatzen duten bilera oro egin ahalko du. Hiru patronatu-kideek bilera eskatu eta hilabeteko epean lehendakariak deialdia egiten ez badu, eskatzaileek ahalmena izanen dute deialdi formala egiteko.

3. Patronatua modu baliozkoan eratuko da, baldin eta kideen erdiak gehi bat bertaratzen badira. Edonola ere, lehendakariak eta idazkariak egon beharko dute, edo haien ordezkoeak.

4. Patronatu-kide bakoitzak boto baterako eskubidea izanen du. Erabakiak bertaratutako kideen edo behar bezala ordezkutatutako gehiengoaren bidez hartuko dira, espresuki bestelako gehiengo kualifikatu bat eskatzen ez bada.

5. Idazkariak patronatuaren bileren akta eginen du, eta hori onetsi beharko da, bilera bukatzen

denean edo hurrengo bileran. Lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute akta. Akta dagokion liburuan idatziko da.

6. Aktan honako hauek zehaztuko dira: bilerako kideak (bertaratu direnak zein ordezkaturak daudenak), bileraren gai-zerrenda, noiz eta non egin den, eztabaiden puntu nagusiak, patronatu-kideek hala eskatzen badute, eta hartutako erabakien edukiak.

7. Bileretarako deialdia idazkariak bidaliko du, lehendakariaren aginduz, bilera egin baino bost egun natural lehenago, gutxienez. Horretarako, jaso izana adierazteko aukera ematen duen edozein baliabide erabiliko da, eta patronatuko kide bakoitzak horretarako adierazi duen lekura edo helbidera igorriko da.

Deialdian bileraren lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere. Deialdiarekin batera gai-zerrendako puntuak aztertzeo beharrezkotzat jotzen diren agiriak bidaliko dira.

Patronatuko kide guztiak bertan egon eta bilera egitea aho batez erabakitzen badute, ez da aurreko deialdirik egin behar.

8. Erabakiek hartzen diren unetik aurrera sortuko dituzte ondorioak, salbu eta, legeak hala xedatu edo patronatuak erabakitzen duelako, eragina gerorako uzten bada.

III. KAPITULUA Lehendakaria

10. artikulua. Hautaketa.

1. Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurari dagokio foru lege honen menpeko fundazioetako lehendakaritza bete behar duen pertsona hautatzea.

2. Hautagai bat baino gehiago badaude, boto gehien lortzen dituen hautatuko da lehendakari. Hautagai bakarria dagoenean, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira hautatuko da hautagaia.

11. artikulua. Eginkizunak.

1. Lehendakariari dagokio fundazioaren ordezkaritza goren pertsona, agintari, edo entitate publiko zein pribatu guztien aurrean. Horretarako, mota guztietako egintzak, kontratuak eta hitzarmenak egin eta beharrezkoak diren dokumentuak izenpetu ahalko ditu.

2. Patronatuaren erabakiz, lehendakariak eginkizun betearazleak hartu ahalko ditu. Halakoetan, fundazioaren kudeaketa organoen gainean ardura betearazle goren izanen du.

3. Halaber, lehendakariari dagokio patronatuaren bileren deialdia egitea eta haietarako gai-zerrenda jartzea, patronatuaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea, bileretan eta haietan diren eztabaidetan buru eta zuzendari aritzea eta proposatzen diren erabakiak bozkaraztea. Berdin-keta dagoenean kalitate-botoa izanen du.

4. Era berean, lehendakariari dagokio garden-tasunaren aldeko konpromiso bat, eta kontrol, analisi eta ikerketarako informazio egokia egon dadin begiratzea, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta bestelako erakunde publikoek eskatuta.

12. artikulua. Ordeztea.

Lehendakaria ez dagoenerako, edo gaixorik dagoenerako, edo kargua hutsik dagoenerako, patronatu-kideen artean haren ordezkari jardunean ariko dena hautatuko du patronatuak.

IV. KAPITULUA Zuzendaria

13. artikulua. Eginkizunak.

1. Zuzendariari dagokio fundazioaren zuzendaritza eta ohiko kudeaketaren gaineko ardura, fundazioaren jardura garatzen den gai guztietan.

Eginkizun betearazleak izanen ditu; bereziki, patronatuaren erabakiak betearaztea, besterik xedatu ez denean. Ardura betearazle goren izanen du fundazioan lan egiten dutenen gainean. Horretarako, fundazioen kudeaketarako gainerako organoak haren menpean egonen dira, zuzenean eta bitartekorik gabe.

Halaber, patronatuak esleitzen edo eskuorde-tzen dizkion eginkizunak beteko ditu.

2. Lehendakariaren ordezkaritza ezertan galaz gabe, zuzendariak fundazioaren ordezkaritza goren izanen du, pertsona, agintari, edo entitate publiko zein pribatu guztien aurrean. Horretarako mota guztietako egintzak, kontratuak eta hitzarmenak egin eta beharrezkoak diren dokumentuak izenpetu ahalko ditu.

3. Zuzendaria izateko eta eginkizun horretarako izendatua izateko, unibertsitateko goi mailako titulua eskatuko da, eta sektore publikoaren edo enpresaren kudeaketa arloan aski esperientzia egiaztatu izana.

4. Zuzendariak eta bestelako ardura betearazleak dituztenek arrazionaltasuna, profesionaltasuna eta eraginkortasuna izanen dituzte irizpide. Fundazioaren oinarritzko xedeen, estatutu-etak manuen eta patronatuaren eta haren menpeko

organoen aginduei jarraikiz jokatu dute, patronatuak onetsiko duen Jokaera Kode Etikoaren printzipioak errespetatuz betiere.

5. Fundazioko zuzendariak erabateko dedikazioko araubidea izanen du, eta bere jarduna batearazina izanen da edozein jardura ordaindu publiko nahiz pribaturekin, salbu eta norberaren ondarearen administrazioa bada.

6. Fundazioko zuzendariak eskubidea izanen du patronatuak ezartzen dituen ordainsariak jasotzeko. Ordainsariak publikoak izanen dira.

Karguagatik fundazioaren aldetik jasotzen dituen ordainsariak, gehienez ere, eta kontzeptu guztiengatik, urteko 60.000 eurokoak izanen dira.

7. Patronatuaren erabakiaren bidez zuzendaria kargutik kendu ahalko da.

8. Fundazioko organoek, legean eta estatutuetan ezarritakoarekin bat, beharrezkotzat jotzen dituzten ahalmenak eta ahalordetzeak eman ahal ditzkiote zuzendariari, karguan jarduteko.

V. KAPITULUA

Idazkaria

14. artikulua. Idazkaria

1. Lehendakariak proposatuta, patronatuak idazkaria izendatuko du. Zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna izan beharko du, eta bost urteko lanbide esperientzia frogatu.

2. Jasoko dituen ordainsariak publikoak izanen dira.

3. Idazkaritzaren titularra ez dagoenean, haren eginkizunak fundazioko langile batek beteko ditu, edo patronatu-kide batek, patronatuak berak xede horretarako gaituko baititu.

4. Idazkariaren eginkizunak honako hauek dira: fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea, eskatzen dizkioten txosten juridikoak egitea, lehendakariaren aginduz patronatuaren bileren deialdia egitea, bilerei dagozkien aktak idaztea eta behar diren ziurtagiriak eta jakinarazpenak luzatzea.

VI. KAPITULUA

Fundazioaren betebeharrak eta kontrola

15. artikulua. Fundazioaren betebeharrak.

1. Foru lege honen menpeko fundazioen organo guztiak indarrean dagoen legediari eta estatutuei lotuko zaizkie jarduteko, eta etikaren, gobernu onaren eta profesionaltasunaren printzipioak bete ditzuzte.

2. Fundazioak urtero emanen dio bere jardunaren berri Nafarroako Parlamentuari, lehendakariak eginiko agerraldi batean.

Nafarroako Parlamentuak fundazioaren organoen titularrak agertzeko eskatu ahalko du. Titularrak laguntza eman beharko diote Parlamentuari, eta eskatzen dien informazioa eskuratuko diote.

Fundazioak, urtarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren azken eguna baino lehen, Nafarroako Parlamentuari hiruhileko informazioa igorriko dio, aurrekontu-exekuzioaren mailari buruzkoa.

3. Foru lege honen menpeko fundazioen jardura urtero fiskalizatu ahalko du Kontuen Ganberak. Ganberari fiskalizazio lana egitea erraztuko zaio.

4. Fundazioaren jardueraren, bere patronatuaren, haien egintza, kontratu, hitzarmen eta dirulaguntza nagusien eta foru lege honetan aipatzen diren egintzen publizitatea fundazioaren web orri baten bidez egingen da.

Aipatu atarian argitaratuko da, halaber, fundazioaren funtsetatik, edozein kontzepturengatik, 15.000 euro baino gehiago jasotzen dituzten pertsonen zerrenda, eta kopuru horren kontzeptua eta zenbateko zehatza. Aurrekotik salbuetsita daude fundazioarekin lan harremana duten pertsonen ordainsariak, zuzendariarenak izan ezik.

Lehen xedapen gehigarria.

Foru lege honetan xedatzen ez den orotan, fundazioei aplikatzekoa zaien foru araubidean ezarritakoari jarraikiko zaio.

Bigarren xedapen gehigarria.

Ezertan ukatu gabe Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganberaren kontrola, foru lege honetan eta legeetan oro har ezartzen den moduan, foru lege honen menpeko fundazioen jardueraren autonomia bermatzen da, gainerako edozein erakunde publikorekiko.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Foru Komunitatea jardura eremu duten foru lege honen menpeko fundazioek bete beharko dute Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak sozietate eta fundazio publikoentzat gardentasun aktiboari buruz xedatzen dituen aurreikuspenak.

Laugarren xedapen gehigarria.

Gainera, horretarako ahalmena duten agintariek gain, foru parlamentariak eskubidea izanen dute foru lege honen menpeko fundazioen eta

haien babesletzaren eskuetan dauden agiriei buruzko informazioa eskuratzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen menpeko fundazioen patronatuen lehen eginkizuna izanen da fundazioen ondatsunen eta betebeharren inbentario edo balantze osoa eta zehaztua onestea.

Seigarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen menpeko fundazioen jarduera urtekako aurrekontuen arabera izanen da, eta fundazioek Kontuen Ganberari aurkeztu beharko diote aurrekontu horien garapena, hark audita dezan.

Zazpigarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen menpeko fundazioek eskatuko dute Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusten den fundazioen araubide fiskal berezia.

Lehen xedapen iragankorra.

1. Aurrezki kutxen gobernu-organoei eta entitate horien araubide juridikoaren gaineko beste alderdi batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuaren babesean Nafarroan eratu diren izaera bereziko fundazioek foru lege honetako xedapenetara egokitu beharko dituzte beren estatutuak, eta horretarako izanen duten epea izanen da Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen xedapen gehigarrietako lehenbizikoak haiek fundazio arrunt bihurtzeko ematen duen epe bera.

2. Egokitzapen hori egin ezean, epea iragaten denean indarrrik gabe eta aplikaziorik gabe geratuko dira foru lege honen xedapenen aurka doazen bere estatutu-xedapen guztiak.

3. Estatutuak onesten direnean, eta, edozein kasutan ere, 1. idatz-zatian aipaturiko epea betetzeari, izaera bereziko fundazioetako zuzendaritza-organotako kideek beren karguak utziko dituzte.

Bigarren xedapen iragankorra.

Izendapen proposamena egin behar duten erakundeek patronatuko-kideak hautatuko dituzte, gehienez ere, hiru hilabeteko epean, lehen xedapen iragankorrak aipatzen duen estatutu-onespenetik edo -egokitzapenetik kontaktzen hasita, eta, edozein kasutan, zortzi hilabeteko epean, gehienez ere, foru lege honek indarra hartzen duenetik.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Foru lege honen menpeko fundazio bakoitzaren web orria jendearentzat eskuragarri egon beharko da, lau hilabeteko epean, foru lege honek indarra hartzen duenetik, eta bertan ezartzen den edukiarekin.

Laugarren xedapen iragankorra.

Foru lege honen menpeko fundazioek helburu gisa finkatuko dute 6. artikuluko g) letran aurreikusitakoa betetzea, patronatua eratu eta sei hilabeteko epean.

Azken xedapenetan lehena.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan bigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Esako lur-lerradurek ukitutako Lasaitasuna eta Mirador de Yesa urbanizazioetako jabeei eta egoiliarrei, eta bere egiten du babesa jasotzeko egin duten eskaera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Esako lur-lerradurek ukitutako Lasaitasuna eta Mirador de Yesa urbanizazioetako jabeei eta egoiliarrei, eta bere egiten du babesa jasotzeko egin duten eskaera." Erabakia heldu da Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko urtarrilaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkie Esako mazelako

lerradurek ukitutako Lasaitasuna eta Mirador de Yesa urbanizazioetako jabe eta bizilagunei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du ukitutako pertsonen Parlamentu honetako batzordean egindako babes-eskaera, eta lan-talde bat edo batzorde berezi bat eratzea erabaki du, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta jabeekin batera lan egin dezan, sortutako egoera konpontzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak, ukitutako pertsonen adostasunarekin betiere, erabaki du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari proposatzea bidezko kalte-ordain bat tarteko desjabetzea larriki kaltetuzko higiezinak, etxebizitza-galeraren konpentsagarri."

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du amaiera eman diezaion gure erkidegoan zerbitzu publikoak jasaten ari diren okertzeari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langile publikoen ordez-

karietiko negoziatioari berriro ekin diezaion esparru guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du sektore publikoko langileei foru dekretu eta foru agindu bidez lan- eta lansari-baldintza berriak inposatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektore publikoko langileen lan- edo lansari-baldintzen aldaketa oro egin dadin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean alderdi sozialak duen ordezkartzaren erdiaren babesarekin gutxienez ere”.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Estatuko Gobernua eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik jar ez dezaten, merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnez landa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Estatuko Gobernua eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik jar ez dezaten, merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnez landa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, Estatuko Gobernua eta administrazio publiko guztiak premiatzen ditu funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik jar ez dezaten, salbu eta merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnak, beren interpretazio jurisprudentzial finkatuan”.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira emakume nafarrek beren haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira emakume nafarrek beren haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezaten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakume nafarrek beren haurdunaldia borondatez eta duintasunez eteteko duten eskubidea defenda dezan, eta emakume horiek inolako koakzio edo larderiarik ez jasateko baliabide guztiak presta ditzan.

2. Ildo horretatik, Nafarroako Parlamentuak berriz ere adierazten du 2012ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran 8/12/MOC-00027 mozioan onetsitakoa, eta geroago hainbat aldiz berretsitakoa, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, ahalik eta denbora laburrenean haurdunaldiaren borondatezko eteteak osasun zentro publikoetan egin ahal izateko, eta lehenengo eta behin, etete farmakologikoak, horiek baitira egiten diren borondatezko eteteen % 40. Gainera, haurdunaldiko lehenengo 8-9 asteen barruan egin daitezke, eta ez lukete antolaketa-neurri nabarmenik hartzera behartuko.

3. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten du erabat arbuiatzen duela Kontzebituaren Bizia- ren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Lege Organikoaren aurreproiektua, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak larriki

urratzen dituen atzerapen sozial onartezina dakarrelako. Horiek horrela, Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentu honen gehiengoaren eta Nafarroako herritarren gehiengoaren borondateari jarraikiz joka dezan, 2010eko legearen aurka aurkeztutako errekurtsioa kenduz, eta behar diren mekanismo guztiak azter eta abian jar ditzan, emakume nafarrek haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea bermatzeko eta, beraz, inboluzio hori Nafarroan ez gertatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du PPK proposatzen duen erreformari aktiboki aurre egiteko, eta babesa eskaintzen die elkarte feministak eta beste gizarte-mugimendu batzuk, helburu horrekin egiten ari diren mobilizazioei.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baliabide materialak eta giza-baliabideak ezar ditzan, nahi gabeko haurdunaldien prebentziorako. Helburu horrekin, behar diren neurriak hartuko ditu, ikasketxeetan sexualitateari eta afektibitateari buruzko derrigorrezko programak sartzeko, eta horretarako behar diren irakasleak prestatzeko. Halaber, anti-sorgailu guztiak eskuragarri egotea bermatuko du, emakumeak laguntzeko zentrozen bidez.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ez dadin aurrerapausorik eman Abortuaren Legearen aldaketan (Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legea) harik eta indar politikokoekiko elkarrizketa burutu eta kontsentsu-akordioak lortu arte."

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan.*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundaingo Adingabeen Zentroaren kudeaketa zuzenean har dezan."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko zuzkidurarekin.*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko otsailaren 13an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Manu Ayerdi Olaiola jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki zezan, gutxienez ere 50 milioi

euroko zuzkidurarekin. Mozioa 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruz (8-13/PES-00211). Hauxe erantzun

dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

– Orein eta orkatzetarako prezintuak dituzten ehiza barrutiei dagokienez, 2013-2014ko ehiza kanpainarako baimendutako prezintuen zerrenda erantsi da.

– Orein eta orkatzetarako prezintuak dituzten eta ehizazaina duten ehiza barrutiei dagokienez, Departamentuak ez dauka informazio hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Eranskina
Barruti eta prezintuen zerrenda

<i>Barrutia</i>	<i>Matr.</i>	Kupoa 13-14 orkatza	Orkatz arrak	Orkatz emeak	Orkaz- kumeak	Kupoa 13-14 oreina	Orein arrak	Orein emeak	Orein- kumeak	<i>EAPa noiz arte indarrean</i>
Oteitza-Baigorri	10002	2	1	1	0					
Tutera	10013	10	edozein sexu eta adin							2014/8
Zirauki	10017	3	2	1	0	0				
Xabier	10018	2	1	1	0					2014/2
Arribé-Atallu	10019	25	9	8	8					2016/2
Baiaín	10024	15	5	5	5					2013/2
Urraulgoiti	10026	3	1	1	1	0				
Santsoain	10029	4	1	2	1					2017/2
Elo	10037	5	1	2	2					2015/2
Ezperun- Gerendiain-Alaitz	10040	6	2	2	2	0				2013/2
Tutera (Errege Bardea)	10042	0								2014/2
Faltzes (Sierras)	10044	0								2016/2
Arguedas	10047	0				0				2013/2
Ledea-Rocaforté	10048	12	4	4	4					2015/2
Xabier	10051	8	3	2	3	15, edozein sexu eta adin				2013/2
Aras	10052	9	3	3	3					2015/2
Aguilar Kodes	10053	28	10	9	9	0				2013/2
Tutera (Valdecruz)	10058	0								2017/2
Baztan	10061	70	25	22	23	10	3	3	4	2017/2
Viana	10064	6	2	2	2	0				2013/2
Olaberri-Oleta- Akotain	10065	2	1	1	0					2016/2
Zubieta	10067	25	9	8	8	0				2013/2
Itoitz	10068	12	4	4	4	3				2016/2
Zaraitzu	10070	36	12	12	12	70	20	25	25	2014/2
Cascante	10071	10	4	4	2					2017/2
Lesaka	10072	8	3	2	3	0				2013/2
Xabier**	10074	6	4	2	0	69	22	27	20	2016/2
Ezkurra	10077	3	1	1	1	3				2017/2
Leartza	10080	1	0	1	0					2014/2
Añorbe	10084	0								2017/2
Untzue-Orizin	10088	9	3	3	3	0				2013/2
Azkoién (Royuela)	10093	0								2017/2
Azkoién	10095	0								2015/2
Irunberri	10106	11	4	3	4	0				2013/2
Tutera (Sanz Sierras)	10107	0				0				
Valtierra (Eguarasko barrutia)	10111	0								2014/10
Leire	10116	7	3	2	2					2016/2
Arantza	10120	6	2	2	2					2017/2
Untziti	10122	5	2	1	2					2015/2
Oderitz	10124	18	6	6	6	0				2013/2
Miranda Arga	10129	0								2016/2
Gares-Artazu	10131	0								2017/2
Obanos Legarda	10138	0								2017/2
Lodosa	10145	0								2015/2
Murillo el Fruto	10146	3	1	1	1					2017/2
San Martín Unx	10147	12	4	4	4					2017/2
Oibar	10150	7	3	2	2					2014/2
Arrada	10159	0								2017/2
Aizpurgi	10160	15	5	5	5					2015/2
Zilegieta	10162	3	1	1	1					2016/2
Sesma	10163	3	1	1	1	0				
Allotz-Lakar	10164	3	1	1	1	0				2013/2
Deikaztelu	10167	6	4	2	0	0				2013/2
Zarrakaztelu	10169	6	2	2	2	0				2013/2
Arlegi	10175	9	3	3	3	0				2015/2
Irurozki	10176	30	10	10	10	15				2016/2

Barrutia	Matr.	Kupoa 13-14 orkatza	Orkatz arrak	Orkatz emeak	Orkaz- kumeak	Kupoa 13-14 oreina	Orein arrak	Orein emeak	Orein- kumeak	EAPa noiz arte indarrean
Artzibar	10179	33	11	11	11	12	2	5	5	2016/2
Eratsun	10180	6	2	2	2	0				2013/2
Uxue	10182	9	3	3	3					2014/2
Ablitas	10183	0								2015/2
Los Arcos	10184	4	2	1	1					2013/2
Allo	10192	0								2014/2
Eriberri La Plana	10193	3	1	1	1					2016/2
Murugarren	10195									2013/2
Orotz-Betelu	10198	27	9	9	9	7	1	3	3	2013/2
Orbaitzeta- Orbara-Aria-Arbe	10203	15	5	5	5	55	15	20	20	2017/2
Esteribar	10204	24	8	8	8	15	3	6	6	2015/2
Ultzama Ibarra	10206									
Aberin-Muniain	10207	0								2014/2
Eslaba	10209	4	2	1	1					2017/2
Fitero	10210	30	10	10	10	15	5	5	5	2017/2
Berbintzana	10215	0								2017/2
Beire	10216	0								2015/2
El Busto	10217	0								2017/2
Xulapain	10218									2013/2
Arellano	10223	Arellano 10.167 barrutian (Deikaztelu) sartu da								
Etxauri (Sarbil)	10227	0								2016/2
Bidasoa	10229	12	4	4	4	3				2015/2
Basaburua	10230	67	22	22	23	10	2	4	4	2015/2
Cintruénigo	10231	6	2	2	2					2017/2
Metauten	10233	3	1	1	1					2017/2
Nabatz	10236	18	6	6	6					2015/2
Igantzi	10244	6	2	2	2					2016/2
Imotz Ibarra	10246	29	10	9	10					2015/2
Aramendia	10247	6	2	2	2					2017/2
Jaurrieta	10248	39	13	13	13	15	4	5	6	2015/2
Zufia	10256	6	2	2	2					2017/2
Ribaforada	10263	0								2016/2
Itzagaondo	10262									2013/7
Leoz, Artariain ...	10266	9	3	3	3					2017/2
Arroitz	10267	2	1	1	0					2016/2
Aroztegi (Atetz)	10269	51	17	17	17					2017/2
Atondo-Oskia	10277	14	5	4	5					2017/2
Santakara	10283	0								2017/2
Cabredo- Genevilla- Marañón	10287	18	6	6	6	0				2013/2
Villamayor	10289	4	2	1	1					2014/2
Hiriberri Arakil	10290	33	11	11	11					2016/2
Abaurregaina	10292(*)	13	4	4	5	5	2	1	2	2013/2
Iurre	10293	0								2014/2
Goñi-Amunarriz- Urdotz	10297	12	4	4	4					2016/2
Ezporogui	10298	0								2015/2
Egues	10301	9	3	3	3					2017/2
Fustiñana	10305	0								2017/2
Gazteluberri	10307	18	6	6	6					2014/2
Mues	10313	3	1	1	1					2014/2
Gastiain-Narkue- Ibarri	10314	6	2	2	2					2014/2
Legasa	10324	6	2	2	2	3				2017/2
Argiñao-Iturgoyen	10326	3	1	1	1					2014/2
Ergoiena Ibarra	10327	21	7	7	7					2017/2
Cortes	10331									2013/2
Garaioa- Abaurrepea	10334	30	10	10	10	15	4	5	6	2013/2
Iturmendi-Bakaiku	10337	14	5	4	5					2017/2
Hiriberri Aezkoa	10342	10	4	3	5	20	6	7	7	2013/2
Izardiaga	10343	27	9	9	9					2016/2
Burgi	10346	31	9	11	11	6	Edozein sexu eta adin			2013/2
Anue-Lantz	10347	40	14	14	12	70	20	25	25	2017/2

Barrutia	Matr.	Kupoa 13-14 orkatza	Orkatz arrak	Orkatz emeak	Orkaz- kumeak	Kupoa 13-14 oreina	Orein arrak	Orein emeak	Orein- kumeak	EAPa noiz arte indarrean
Aiegi	10355	3	2	1	0					2016/2
Artozki-Ekiza	10360	18	6	6	6	3	1	1	1	2013/2
Orreaga	10363	15	5	5	5	21	5	8	8	2016/2
Monteagudo	10369	3	1	1	1					2016/2
Mendigorria	10372									2013/2
Bargota	10375	9	3	3	3	0				2013/2
Lakuntza- Arruazu-Arbizu	10376	15	5	5	5					2017/2
Etsain	10383	21	7	7	7	30	8	11	11	2013/2
Etxalar	10384	15	5	5	5	3				2016/2
Eugui	10385	30	10	10	10	72	18	27	27	2015/2
Ezkaroze-Orontze	10391	30	10	10	10	24	6	9	9	2014/2
Barasoain	10395	6	2	2	2	0				2013/2
Andosilla	10396									2013/2
Zare	10398	15	5	5	5					2017/2
Biotzari	10401	13	5	4	4					2017/2
Larraga	10402	0								2016/2
Otsagabia-Itzaltzu	10403	36	12	12	12	32	8	12	12	2013/2
Acedo	10408	9	3	3	3					2014/2
Longida	10409	24	8	8	8	0				2013/2
Aunitz	10412	15	5	5	5	21	5	8	8	2016/2
Patemain	10413	0								2015/2
Castejón	10414	0								2016/2
Milagro	10416	0								2016/2
Itzalle	10417	16	5	5	6	9				2015/2
Aezkoa	10418	42	14	14	14	70	20 (18+2 zelatan)	25	25	2015/2
Garralda	10419	13	5	4	4	19	5	7	7	2015/2
Gorza-lize- Galoze	10421	9	3	3	3	15				2017/2
Erronkari	10423	54	18	18	18	9	3	3	3	2015/2
Bidankoze	10424	27	9	9	9	9	3	3	3	2016/2
Urzainki	10425	9	3	3	3	9	3	3	3	2016/2
Itzu	10428	3	1	1	1					2017/2
Caparoso	10429	3								2014/2
Garde	10431	30	10	10	10	12	4	4	4	2016/2
Uztarroze	10432	18	6	6	6	32	8	12	12	2016/2
Zangoza	10433	2	1	1	0	2				2017/2
Donamaria	10434	15	5	5	5	3				2016/2
Fontellas	10436	0								2015/2
Cadreita	10438	0								2015/2
Altsasu	10439	15	5	5	5					2017/2
Faltzes	10440	0								2017/2
Baraibar-Alli- Iribas	10443	32	10	10	12					2017/2
Lerga	10444	3	1	1	1					2014/2
Petilla Aragoi	10445	9	3	3	3	3	1	1	1	2017/2
Etxarri Aranatz	10446	8	3	2	3	0				2013/2
Pitillas	10448	0								2016/2
Galipentzu	10450	10	3	3	4					2014/2
Kaseda-San Isidro del Pinar	10451	8	3	2	3	0				2013/2
Artaxoa	10452	6	2	2	2	0				2013/2
Erriberri	10453	3	1	1	1	0				2013/2
Desoio	10456	4	2	1	1					2017/2
Abartzuza	10457	6	2	2	2	0				2013/2
Martzilla	10458	0								2014/2
Mendabia	10459	0								2014/2
Goizueta	10464	12	4	4	4					2016/2
Villatuerta	10465	0								2014/2
Aritzala	10473	0								2017/2
Aietxu	10475	18	6	6	6	9				2016/2
Tafalla	10478	5	2	1	2					2015/2
Ibiltzieta - Espartza Zaraitzu	10484	39	13	13	13	13	3	5	5	2016/2
Orbaibar (intentsiboa)	10485	0								2017/2

<i>Barrutia</i>	<i>Matr.</i>	Kupoa 13-14 orkatza	Orkatz arrak	Orkatz emeak	Orkaz- kumeak	Kupoa 13-14 oreina	Orein arrak	Orein emeak	Orein- kumeak	<i>EAPa noiz arte indarrean</i>
Uharte Arakil	10486	46	15	15	16					2016/2
Puiu	10489	0								2016/2
Izaba	10493	22	7	7	8	45	11	17	17	2015/2
Tutera	10494	8	4	2	2					8/2014
Erromantzatua	10495	15	5	5	5					2013/2
Ameskoa	10496	21	7	7	7					2013/2
Lokiz	10498	15	5	5	5					2013/2
Torralba del Río - Azuelo	10500	8	4	2	2					2017/2
Oloritz-Etxague- Soltxaga-Mendibil	10501	9	3	3	3					2016/2
Lezaun	10502	9	3	3	3	0				2013/2
Bera	10505	21	7	7	7					2017/2
Nabaskoze	10506	16	6	5	5	16				2014/2
Ustaize-Uskartze- Arrakaxgoiti	10507	6	2	2	2	6				2017/2
Aitzoain	10512	0				0				
Aralar	10516	18	6	6	6	0				2013/2
Funes	10517	0								2016/2
Kintoa	10519	18	6	6	6	37	9 (8+1 zelatan)	14	14	2016/2
Luzaide	10523	15	5	5	5	7	2	2	3	2017/2
Lekunberri- Albiasu	10524	45	15	15	15	0				2013/2
Lizoain	10525	33	11	11	11	15	3	6	6	2017/2
Adios	10526	0								2017/2
Aldatz-Arruitz	10528	30	10	10	10	3				2017/2
Sunbilla	10529	9	3	3	3	3				2016/2
Aranguren	10530	6	2	2	2					2014/2
Leitza	10531	45	15	15	15	0				2013/2
Lizarra	10532	0								2016/2
Oteitza	10533	0								2017/2
Ibargoiti	10535	7	3	2	2					2015/2
Olazti-Ziordia	10536	16	5	5	6					2016/2
Elortz	10537	0								2015/2
Corella	10538	15	5	5	5					2016/2
Arnañanzas	10541	12	4	4	4	0				2013/2
Jaitz	10543	4	2	1	1	0				2013/2
Zuñiga	10544	0								2014/2
Iragi	10545	18	6	6	6	34	8 (7+1 zelatan)	13	13	2014/2
Etxauri	10547	6	2	2	2					2015/2
Mañeru	10548	0								2014/2
Ollo-Senosiain	10549	6	2	2	2					2015/2
Agoitz	10553	3	1	1	1					2016/2
Errala	10554	0				0				2013/2
Urraulbeiti										
Alduate	10555	9	3	3	3					2014/2
Urraulbeiti Artieda	10556	9	3	3	3					2014/2
Erroibar	10557	40	14	14	12	34	10	12	12	2016/2
Erro-Zilbeti	10558	18	6	6	6	28	8 (7+1 zelatan)	10	10	2016/2
Valdorba Natural	10559	24	8	8	8					2017/2
Traubuenas	10560	0								2014/2
Beruete	10561	20	7	6	7					2015/2
Areso	10562	33	11	11	11	0				

Galdera, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espedienteei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espedienteei buruz (8-13/PES-00212). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

1.- Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak 2011ko ekainaren 30ean emandako txostena ikusirik, zehapen-espedientea hasi zen Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatearen aurka, arau-hausteak detektatu zirelako ikuskapen batean, erakunde horrek El Culebrete alderdian hondakinen tratamendurako daukan zentroan.

Zehapen-espediente horren amaieran 13.500 euroko isuna ezarri zen. Ordainketa murriztua baliaturik, isun hori ehuneko 30eko deskontuarekin ordaindu zen.

2.- 2012ko abenduaren 19an beste ikuskapen bat egin zen, eta errepikatu egin zen 2013ko apirilaren 25ean.

Horren guztiaren ondorioz, urriaren 31ko 489E/2013 Ebazpenaren bidez Mankomunitatearen aurkako zehapen-espedientea abiarazi zen. Espediente horri erantsitako kargu-orrian azaldu zen ustezko zein arau-hauste hauteman ziren ikuskapenetan.

Mankomunitateak alegazioen idazkia aurkeztu zuen 2013ko azaroaren 20an. Orain zehapen-espedientea alegazioei buruzko txosten teknikoen zain dago, betekizun hori bete behar baita espedientean aurrera egiteko eta bidezkotzat jotzen den ebazpena emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, kreditu-aseguramenduetan espezializaturiko enpresei eta horiek Nafarroako enpresen finantzaketan duten eraginari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du salmentak aseguratzearen arloan Frantzian abian jarri den neurri bati buruz (PES-197). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Enpresen salmentak aseguratzearen arloan Frantzian abian jarri den neurriari buruz Ayerdi jaunak igorritako informazioa arloko teknikari adituek aztertu dute. Azterketaren ondorioek diote aurkeztutako informazioan ez dagoela datu kuantitatiborik Nafarroan jarduketa horrek izan dezakeen egiazko eskariaz eta hura abian jartzeko finantza-beharrez. Horri gehitu behar zaio aurrekontu luzatua dugula 2014rako, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako aurrekontu-proiektua atzera bota ondoren; horrek zaildu egiten du kontusail berriak martxan jartzea.

Kontuan izan behar da, gainera, 2013an Gobernuak 2013-2016 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Plana abiarazi duela, ICEX,

Merkataritza Ganbera eta CEN bezalako erakunde eta entitateekin lankidetzan.

Planak 85 neurri biltzen ditu. Horien artean hauek azpimarra daitezke:

- Kanpo sustapenerako laguntza ekonomikoak
- Nazioarteratzeko enpresen arteko elkarlana sustatu eta finantzatzeko laguntzak
- Aholkularitza espezializatua finantzatzeko laguntzak
- Nazioarteko lizitazioen programa
- Enterprise Europe Network zerbitzuak indartzea, hots, enpresen arteko lankidetzaren errazten duen Europako sarea indartzea.

Arlo honetan Nafarroan diharduten eta plana egiten lagundu duten erakunde espezializatuek mahai gainean jarri dituzten neurrien artean ez da aipatu ez proposatu Ayerdi jaunak adierazitakoa, eta parte-hartze prozesuan inork ere ez du eskatu planean horrelako neurririk sartzeko.

Dena den, kontuan har liteke hurrengo ekitaldietarako, betiere horretarako eskaririk balego; baina, lehen esan dudanez, arlo honetan lan egiten duten erakundeetako batek ere ez du aintzat hartu.

Ayerdi jaunari eskertu egiten dizkiogu bere interesa eta eman digun informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "Nafarroako Unibertsitate Kliniketan ez da inor hil organoak eman ahal izateko moduan, Nafarroan transplanteak egiteko eta organoak emateko programa abian jarri zenetik? Nafarroako Unibertsitate Kliniketan zergatik ez da batere organorik lortu emaile gorpu batetik heldu dena?" (PES-00222). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak:

Nafarroako Unibertsitate Kliniketan ez da inor hil organoak eman ahal izateko moduan, Nafarroan transplanteak egiteko eta organoak emateko programa abian jarri zenetik?

Aurreko aldietan erantzun izan den bezala, organo erazketak oro har Nafarroako Ospitalegunean egiten dira, baina Nafarroako Unibertsitate Klinikak emaileak detektatzeko protokoloa ezarrita dauka eta Transplanteen Erakunde Nazionalaren

(TEN) Emate Prozesuaren Kalitatea Bermatzeko Programan sarturik dago. Hain zuzen ere 2011ko urtarrilean erietxe horrek arrakastaz gainditu zuen TENeko auditoreek egindako kanpo-ebaluazioa.

Programa horren ondorioz 2005. urtetik hona 7 organo-emaile izan dira NUKen, eta balizko beste 22 emaile detektatu dira baina azkenean ezin izan dute organorik eman, kontraindikazio medikoak zirela eta.

Nafarroako Unibertsitate Kliniketan zergatik ez da batere organorik lortu emaile gorpu batetik heldu dena?

TENeko adituek, goian aipatutako auditoria egin zutenek, beren txostenean azaldu zuten zergatik den hain txikia NUKeko emaile eraginkorren kopurua. NUKek ezaugarri bereziak dituela esan zuten: medikuntza publikoarekin ituna daukan ospitale pribatua da, ez du erreferentziako biztanleriarik esleituta eta horregatik ez du larrialdi kopuru adierazgarririk jasotzen; Foru Komunitatean gertatzen diren garezurreko traumatismo eta garuneko hodietako istripu gehienak Nafarroako Ospitalegunera bideratzen dira. NUKen beste ezaugarri bat da tumore gaiztoak dituzten erien portzentaje handia izatea, eta gaitz horrek organoak ematea eragozten du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Animaliak Babesteko Etxauriko Zentroaren kudeaketa eta zakurrak biltzeko zerbitzua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen jarraitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurrien gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Animaliak Babesteko Etxauriko Zentroaren kudeaketa eta zakurrak biltzeko zerbitzua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen jarraitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurrien gainekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "Nafarroako Gobernuak zer ekintza abiarazi behar ditu Etxauriko Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa eta

zakurrak biltzeko zerbitzua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen jarraitzeko?" (PES-00225). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Dakizunez, kontratista batek ematen du Etxauriko animaliak babesteko zentroko kudeaketa zerbitzua, kontratazio publikorako prozedura baten bitartez hura adjudikatu zitzaionetik.

Zerbitzu hori berriro lizitzatzeko dokumentazioa prestatzen ari da, kontratatutako enpresa batek eman dezan zerbitzua. Beraz, zerbitzua azken urte hauetan bezala ematen jarraitzea bermatuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, asistoliako organo-emateetarako protokoloari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, asistoliako organo-emateetarako protokoloari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du organo-emateen portzentajearen inguruko zenbait

gairi buruz (PES-00224). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Hori al da espero den asistoliako organo-emateen kopurua?

Bai, horiek izan dira teknikariek egindako zenbatespenak.

Zer giza baliabide eta baliabide material eta zer aurrekontu egonen da plan horretarako? Zein uste da izanen dela proiektu hori ezartzearen kostua?

Zainketa Intentsiboetako Unitateko baliabide material eta giza baliabideak eta Transplanteen Koordinazioaren aurrekontua erabiliko dira programa gauzatzeko.

Nafarroako Ospitaleguneko Osasun Laguntzako Etika Batzordeak egin al du txostenik asistoliako organo-emateei buruz Nafarroan? Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi dut.

Programa igorri zaio Nafarroako Ospitaleguneko Osasun Laguntzako Etika Batzordeari, baina hark ez du oraindik txostenik eman. Jasotako infor-

mazioaren arabera, heldu den otsaileko bileran eztabaidatuko da gaia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakitekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azaltzekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du organo-emateen portzentajearen inguruko zenbait gairi buruz (PES-00223). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak:

Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan ba al dago sendagile intentsibistek gidatutako ZIUrik?

Lizarrako García Orcoyen Ospitalean badago sendagile intentsibistek artatutako ZIU bat.

Tuterako Ospitalean badago Bizkortzeko eta Zainketa Bereziatarako unitate bat anestesia eta erreanimazio ataleko profesionalak gidatzen dutena, baina ez dago intentsibistarik.

Guardiako neurologorik ba al dago bi ospitale horietan?

Lizarrako García Orcoyen eta Tuterako Reina Sofía ospitaleetan ez dago guardiako neurologorik.

Eta transplante-koordinatzailerik?

Lizarrako García Orcoyen eta Tuterako Reina Sofía ospitaleetan ez dago transplanteen koordinatzailerik.

Aurreikusita al dago heriotza entzefalikoko gaitxoaren organoak ospitale horietan eraztea, ala emaila horiek ZBU mugikorretan eramanen dituzte erazketa eginen den ospitalera? Eta, erazketa eginen den ospitaleaz denaz bezainbatean, ospitale horietan egiten ez badira, zeinetan eginen dira erazketak?

Organo-erazketa ez da Lizarrako eta Tuterako ospitaleetan eginen. Gaixoak Nafarroako Ospitalegunera eramanen dira eta han eginen da erazketa.

Zenbat organo uste da berreskuratuko direla plan horren bidez?

Urtean 1-2 organo-emate izanen direla uste da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín